

KONTAKIZUN HISTORIKO BAT

Aurreko idazlantxo batetan genioen Carlos I. erregea Lezotik igaro zela Flandriarantz zihoanean. Agian bidai hartan gertatu omen zen eskuizkribu batek dakarren jazoera bat.

Eskuizkribu horrek dioenez, Carlos I.a kalean gora ba omen zihoan, eta horra non egiten duen topo mandazain batekin, eta halaxe elkarriketari eman zioten biek euskaraz gisa honetan:

- Carlos I.ak- "Mandazaina nondik zatoz?
- Mandazainak- "Nafarroatik!"
- Carlos I.ak- "Nafarroan gari asko?"
- Mandazainak- "Bai, Jauna, gari asko.
Nafarroan gari asko.
Bat ere, bat ere ez neretzako"

K. Etxezurieta

"Lezo herriaren ikuspegi sozio-ekonomiko-historikoa" idazlanetik hartua.

